THE GREAT HIMALAYA TRAIL

Artikulu honetan, Nepalen egindako trekking ikusgarri eta zoragarri honen esperientziak azaldu nahi dizkizuet. Herrialde hau oinez zeharkatzea zen nire asmoa, apenas garapenik izan duten lurraldeak zeharkatuz eta inguru turistikoetatik aldenduz, horretarako dauden bide-sare desberdinak erabiliz. Horrela, trekkingaren zatirik handiena burutzeko orduan, ingurune ezezagunetik igaro eta turismoaren mapetatik at geratzen direnean, ohartzen zara benetan nepaldarren bizitzaz eta bizimoduaz.

Trekking honi abentura deitzea zaila gertatzen zait, hala ere, badu abenturatik parte bat, batik bat Nepaleko mendebaldeko lurraldeetara gerturatzen zarenean. Zibilizaziotik urrun eta, ondorioz, aurrerapen teknologikoetatik eta guretzat oinarrizkoak diren hainbat gauzetatik isolaturik bizi den herri eta jendearekin topo egitean, nolabaiteko abentura txiki batean murgiltzen zarela esango nuke.

Trekkinga ahalik eta arinen egiteko asmoz, kanpadendarik ez garraiatzea erabaki nuen eta horrek, jatorrizko bidetik zerbait aldentzea behartu ninduen. Uper Dolpora sartzea ezinezkoa gertatu zitzaigun, izan ere, lehen elurteak hasita 4800 metroko pare bat igarobide saihesteko, beste bide batzuk erabiltzera jo genuen.

TESTU ETA ARGAZKIAK

Mamen Etxaniz Lesaka
(Azpeitia, 1961)

Nepal, Andeak, Alpeak eta Pirinioetako mendietan ibili, mendiko eskian Pirinioak, Japonia eta Ameriketan zeharkaldiak burutu eta Pirinioetako zeharkaldia bizikletan eginak ditu.

Lur hauetan aurkitu eta gozatu dudan paisaiaren aniztasun eta aberastasuna mugagabea da

Bidaia antolatzen hasteko, Interneten bi gidaliburu topatu nituen: High Route-rako (Robin Boustead) eta Low Route-rako (Linda Bezemer-ena, formatu digitalean). Behar nuen informazioa jaso eta egutegia prestatzeari ekin eta gero, Nepaleko agentzia batekin kontaktatu nuen gidari baten zerbitzuak kontratatzeko. Oro har, Himalaian egin ohi diren trekking gehienak udaberri eta udazkenean izan ohi dira, montzoien aurretik eta ostean. Nik nahiago nuen negu inguruan joatea, egunak argiagoak baitira. Eta egia esan, zorte itzela izan nuen, ez baitzuen egun batean ere euririk egin.

Dhorpataneko gaztetxoen taldea

Dhorpataneko ikuspegi zabala

THE GREAT HIMALAYA TRAIL

Great Himalaya Trail-a, Nepal osoa zeharkatzen duen ibilaldia da, bai bere zati garaienetik, Hig Route izenekoa, baita ere tarteko bidetik ere, Low Route edo "ibilbide kulturala" bezala ezaguna. Nire kasuan, trail mistoa izan da, nagusiki Low Route erabili dut, baina 5000 metroko igarobideak gainditzea eskatzen zituen Hight Routeko tarteekin konbinatuz. Trekking honetan, Kanchenjunga, Makalu, Solo Khumbu, Rolwaling, Helambu, Langtang, Ganesh Himal, Manaslu, Annapurna, Dhaulagiri, Ghorpatan, Jumla eta bestelako mendigune ederrak ezagutzeko parada izan dut. Guztira, ekialdetik mendebaldera 1100 km, 65000 m desnibel positibo eta 63000 m negatibo desnibelak metatuz.

1. KANCHENJUNGA-ROLWALING

Abentura honi hasiera ekialdeko mendietan eman nion, zortzi mila metro gaindi dituen Kanchenjunga mendi erraldoia kokatuta dagoen lurraldean. Aldapan gora hasi bezain laster, ohartzen zara ibilbidea ez dela samurra izango, luzea ez ezik gogorra zalantzarik gabe. *Om mani padme hum,* budismoaren mantrarik ezagunena maiz entzun eta berehala xuxurlatzen hasten zara, bai eguna hastearekin bai etapa bakoitza amaitzea garaipen txiki bat bezala hartzean. Kanchenjungako eremua atzean utzita, Makaluko mendigunera gerturatu eta bertan bizi diren Limbu eta Rai etniako bizilekuak ezagutzeko parada izan nuen. Emakumeak, sudurretik eta belarritik eskegita izaten dituzten apaingarrietatik nabarmentzen dira. Limbu, 400.000 pertsona inguruko herria da, gehienak Mechi inguruan bizi dira, Nepal ekialdeko muturrean, Rai edo Khambu etnia, berriz, 600.000 pertsona baino gehiagok osatzen dute eta gehienak Kosi inguruan bizi dira.

Herritar talde bat Helambu-Lantangeko lurretan

> *Om mani padme hum,* budismoaren mantrarik ezagunena maiz entzun eta berehala xuxurlatzen hasten zara

Mendebalderantz jarraituz, munduko mendirik garaiena altxatzen den lurrera iritsi nintzen, Solo Khumbura hain zuzen ere. Everest, nepaldarrentzat Sagarmatha edo tibetarrentzat Chomolungma izenez ezaguna den mendi honen magalean xerpa herria bizi da, Solo Khumbuko haranean hain zuzen ere. Xerpa herria munduko mendi garaienen magalei erantsita bizi da aspaldidanik baina, azken hamarkadetan ugaritu diren trekking eta alpinismo joera desberdinak xerpa komunitatea eraldatzen ari direla esan daiteke. 1953. urtean Edmund Hillary eta Tenzing Norgayk munduko mendi garaienaren gailurra lehen aldiz zapaldu zutenetik, kasik isolaturik bizi zen nekazari eta abeltzainen herri honek mendi-turismoaren boom-a ezagutu du. Ekonomia aukera berri hauek zerbitzu eta proiektu on batzuk (eskolak, ospitaleak...) ekarri arren, bertako kulturaren hondatzea eragiten ari dira. Zoritxarrez, beste hainbat kulturekin duten gehiegizko harremanak, mendebaldekoarekin batik bat, ehunka ur-

Jumlako lurretan

teko historia duen herri honen kultura desagertzeko zorian jarri du.

Solo Khumbu atzean utzi eta sekulako etapa burutu ostean, Kharikholara jaitsi ginen. Kharikhola, Waku eta Kaku herrixka txikiak dira, itsas mailatik 2000 metrora gutxi gorabehera. Inguru honetan makina bat lurrezko pista daude, 3000 metrora iristeraino, hala ere, ez da ibilerraza, mendi-hegal zirraragarriak eta lur-jauzi ugariak baitaude. Intsentsu usaina airean barreiatzen da, otoitz-bandera koloretsuek nonahi ikusten direlarik. Budismoaren arrastoak nonahi ikus daitezke.

Intsentsu usaina airean barreiatzen da, otoitz-bandera koloretsuek nonahi ikusten direlarik

Jiri herrira iristean ohartzen zara bertako biztanleentzat trekking-turismoak duen garrantziaz. Everesteko oinarrizko kanpamenduraino hedatzen den ibilbidea bi moduz egin daiteke, Katmandutik abionetaz Luklaraino joanda edo autobusez Jiriraino joan eta 6 edo 7 etapa oinez egin Luklara heldu ahal izateko. Horregatik, herri honek itzeleko garrantzia du, autobusak bertaraino iristen dira eta.

Jiri atzean utzi eta Rolwaling haran aldera jo genuen segidan. Rolwaling harana Katmanduko ipar-ekialdean dago, Khumbu Himal eta Langtang Himal eskualdeen artean. (Rolwaling "ildoa" esan nahi duen xerpa hitza da). Alpinistek oso gutxi bisitatzen duten lekua da, 2004ra arte turistentzat itxita egon baitzen Txinarekiko gertutasunagatik. Ibilbidearen zati honetan, kasik 3000 metroan kokatuta dauden tenplu budista ugari ikus daitezke eta paisaia horretan bete genituen hurrengo hiru egunak. Hogeitabat egun eta gero, Bagmati Gunean kokatuta dagoen Barabise herrira iritsi ginen eta, hemendik, Kathmandura jo genuen bigarren zatiari aurre egin aurretik atsedena hartu eta indarberritzeko.

2. LANTANG-ANNAPURNA

Katmandun atsedena hartu eta abian jarri ginen. Nepaleko hiriburutik Helambu/Lantang ingurura jo genuen. Helambu Nepalgo eskualde bat da, Katmandutik 80 kilometro ingurura. Hyolmo jendearen etxea da. Helambu eskualdea Lauribina La pasabidean hasten da eta Melamchi haranera jaisten da. Langtang parke nazionala Nepalgo laugarren Parke Nazionala da, eta 1976an ezarri zen Himalaiako lehen parke nazional gisa. Hainbat mendi garrantzitsu ditu, hala nola, zortzimilakoetako bat, Shishapangma munduko hamalaugarren tontorra dena. 4500 pertsona inguru bizi dira parkean, eta beste asko kanpotik etortzen dira basoetako egurra lortzeko. Eskualdean tamang etnia bizi da. Oraindik nabarmenak dira 2015ean Nepalek jasan zuen lurrikararen ondorioak, eta urteak beharko dira bere lehengo egoerara itzultzeko, itzultzerik badute. Lauribina Pass igarobidea (4620 m) gainditu eta Goisakundako lakuetara iritsi ginen.

Oraindik nabarmenak dira 2015ean Nepalek jasan zuen lurrikararen ondorioak

Lantang parkea atzean utzi eta, ahalegin handia eskatzen zuten etapak bete eta gero, Trisuli-Gandaki ibaiek marrazten duten haranean murgildu ginen. Lur hauek zeharkatu eta Manasluren lurretan sartu ginen. 1991tik, "Ispirituen mendia" esanahia duen zortzimilako mendi hau, ibiliz inguratu daiteke. Ibilbide honen zati bat, garai bateko gatz-bidearen zati bat da, Tibetetik Budhi Gandaki ibaia jarraituz datorrena hain zuzen ere. Iparraldean koka-

Manaslu inguruan

tzen den Larkya La (5160 m) igarobide ezaguna ederra da benetan. Nepaleko Himalaiako pasabiderik luzeena den hau, Dharmashala eta Bhimtang artean dago, eta Manaslu zirkuituko punturik altuena da.

Mendizale askorentzat ezaguna den Annapurnako ataria gertu genuen eta bertarantz jo genuen. Egun batzuk pasa eta gero, mendi-turismorako oso prestatuta dagoen Annapurnako lur-eremuan murgildu ginen. Himalaiako mendigune honetan, munduko hamargarren mendirik garaiena eta arriskutsuenetako den Annapurna I kokatzen da. Sanskritoz, "Uztaren jainkosa" edo "Ugaritasunaren jainkosa"

Dhorpataneko herrixka bat

esan nahi du. Hinduismoan, Annapurna, janari eta sukaldaritzaren jainkosaren izena da. Kontserbazio-eremuak mendi-ibilaldi ugari ditu, Annapurnako zirkuitu ezaguna eta gailurretara igotzeko ibilbideak barne.

Turismo gune honetatik ihes egin eta Gyaru (4600m) herrirantz jo genuen, Manang herrixkara bidean. Bertatik Annapurna mendien ikuspegi paregabeaz gozatu daiteke. Thorong Phedi atzean laga eta, Annapurnako Kontserbazio Eremuan dagoen trekkingeko pasabiderik altuenerantz jo genuen. Thorong La (edo Thorung La) itsas mailatik 5416 metroko altuera duen mendi pasabide bat da. Manang, Muktinath eta Ranipauwa herriak batzen ditu.

> Himalaiako mendigune honetan, munduko hamargarren mendirik garaiena eta arriskutsuenetakoa kokatzen da

Muktinath herrira jaistean, berriro jeep, autobus eta abarren zaratak erakusten du turismoaren presentzia nabarmena dela. Hots hi-

guingarri hauetatik ihesi, herritik urrundu eta Jomsom herrirantz jo genuen. Jomsom edo Dzong-Sampa, 2700 metroko garaieran dago eta Kali Gandaki ibaiaren bi ertzetan zabaltzen da. Hemengo pistetan ezinezkoa suertatu zitzaigun oinez jarraitzea eta, bigarren etapa luze honi amaiera eman eta Pokharara jaitsi ginen indarberritu eta hirugarren etapa prestatzeko.

3. DHAULAGIRI-FAR WEST

Pokharan atsedena hartu, trekkingaren azken zatia ondo prestatu eta abia jarri ginen. Dhaulagiri aldera jo genuen, Magar etnia bizi den eremura hain zuzen ere. Nepalgo gobernuak onartutako 59 talde natiboetako bat den Magar herri, Dhaulagiri eta Mahabharat mendilerroen artean daude eta berezko hizkuntza magarra duten arren, gehienek nepaleraz hitz egiten dute. Inguru honetan berriro urrundu ginen lurralde garatuetatik, haran isolatuak izanik, geroz eta zailagoa jan, edaria eta lotarako lekuak aurkitzea. Dorphataneko ehiza gune babestuak Nepaleko alderik gogorrena erakusten digu. Namaste esan orduko, umeak korrika gerturatzen dira, baita gizonezkoak ere, deseroso sentitzeraino. Nire gidaria urduri jarri eta zaila gertatzen zaio egoerari aurre egitea. Bidaiariak emakumeak bakarrik izatea harrigarria gertatzen zaie Nepal osoan, baina bereziki hemen, zibilizaziotik horren urrun bizi diren herrietan.

Hemen ezagutu genituen trekking honen benetako zailtasun eta gogortasuna. Gosez eta janaririk ezin aurkitu, lotarako lekurik ez eta bertako etxeetan ate joka ibili behar. Ingurune natural honen idortasunak eta neguaren iritsierak ezinezkoa bihurtu zuten Dolpoa gurutzatzeko egin genuen ahalegina eta horrek, Dolpoko beheko partetik (MUGU) jarraitzera behartu gintuen. Beraz, esan dezaket trekkingaren zati honetan bizi izan genuela aventuraren zaporea: janari eta edari falta, lo egiteko lekurik eza, distantziak neurtzeko zailtasuna... eta horrek zaildu egiten zuen gure ibilera. Hala ere, amaiera gertu ikusteak, animatu eta aurrera jarraitzea bultzatzen gintuen.

> Ingurune natural honen idortasunak eta neguaren iritsierak ezinezkoa bihurtu zuten Dolpoa gurutzatzea

Jumlako haranera iristean, espazioak zabalagoak dira eta Himalaiako mendiak urrutiago eta baxuagoak ikusten dira. Jumla, Karnali Guneko hiriburua da eta inguruko herrietan bezala oso jende gutxi bizi da, kokatuta dagoen altuerak zaildu egiten baitu bertara iristea eta horregatik esan daiteke erdi isolaturik dagoela. Nepalgo lakurik handiena den Rara Lake ingurura iristean sekulako ezustea hartu nuen, ederra oso! Teknikoki eta fisikoki eremu eskuragarrienetakoa da, baina turismoaren ikuspegitik gutxien ustiatzen den lekua da. "Aintziren erregina" izenez ezaguna den laku honetan hegazti espezie asko aurkitu daitezke, baina paisaiez haraindi, herri bitxiak eta baso eremu zabalak ezagutzeko aukera ematen du ibilbideak. Lakua bera, bertako pinu eta zedrozko baso trinkoz inguratuta dago, eta bere ertzetatik, tontor elurtuetan ikuspegi ikusgarriak ikus daitezke.

Leku eder hau atzean utzi eta beste hiru egunez ibilian jarraitu genuen, Ashis nire gidaria gaixotu zen arte. Egoera honetan, trekkingaren azken zatia, The Far West lurraldekoa bertan behera utzi eta bukatutzat eman nuen abentura eder hau. Nepalgo hiriburura itzuli eta Katmanduko kaosean murgildu ginen. Swayambunatheko amaierarik gabeko eskaileretan gora, Pashupatinateko Bagmati ibaian errauste zeremonietan erretako gorpuen kearen arrastoan, Bodhnatheko stuparen inguruan monje budisten otoitzen itzulian.

Ingurua	Etapa kopurua	Luzera
Kanchenjunga/ Makalu	8	123 km
Solo Khumbu	7	120 km
Rolwaling	3	59 km
Helambu/Lantang	13	171 km
Manaslu	9	126 km
Annapurna	6	105 km
Dhaulagiri	3	70 km
Dhorpatan	9	181 km
Jumla/Far West	6	136 km

Solo Khumbuko monje gazteak garbiketa lanak egiten